


Nire habia, nire identitatea



Gure identitatean, bizi dugun espazioak nola adierazten duen ikasiko dugu. Experimentazioaren bidean argazkilaritzaren indarra arakatuko eta gure gela idealaren maketa bat eraikiko dugu.

Helburuak

- Josu Zapataren eta bere "Zaborraren habitat gunea" (Habitáculo residual) artelanera hurbiltzea.
- Gure identitate, gustu, testuinguru geografiko, politiko eta sozialei buruz gure espazio propioak nola adierazten duten hausnartuko dugu.
- Sistema kapitalista eta kontsumismoari buruzko eztabaida piztea.

Aipamenak

Josu Zapataren "Zaborraren habitat gunea" <https://www.iosuzapata.com/proyectos/habitaculo-residual/>

Adrienne Salingerren "Real Teens" <https://www.anatomyfilms.com/adrienne-salinger-real-teens/>

<https://www.ismorbo.com/la-fotografa-adrienne-salinger-retrata-a-adolescentes-en-sus-dormitorios-en-los-90/>

James Mollisonen "The Bedrooms Of Children Around The World" https://www.youtube.com/watch?time_continue=73&v=Lx4SkDhh7l&feature=emb_title

<https://culturainquieta.com/es/lifestyle/item/11983-ninos-de-diferentes-paises-nos-muestran-sus-habitaciones.html>

Logelen maketak. <https://decoracion.tendencias.com/dormitorio/hemos-visto-maquetas-de-dormitorios-hechas-por-ninos>

<http://tecnologiaparaeso.blogspot.com/2011/12/maqueta-escala-de-dormitorio.html>

Tik tok-a Zertarako? <https://www.xataka.com/basics/que-tiktok-donde-viene-que-ofrece-red-social-videos>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Josu Zapataren "Zaborraren habitat gunea" (Habitáculo residual) artelana ikusiko dugu. <https://www.iosuzapata.com/proyectos/habitaculo-residual/>

2. Galdera hauen inguruan jardun: Nolako eraikuntza da?

Ze materialez egingo da?

Bertan bizi daitekeela uste duzu? Zergatik?

Espazio hau, zure etxeko beste leku edo guneren batekin erlazionatzen al duzu? Zeinek?

Hala izan ezker, etxeko ze espaziorekin lotzen duzu?

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Habi, gela eta espazio propioaren definizioak bilatuko ditugu eta ondoren galdera hauek erantzunoko ditugu:

Nola definituko zenuke "zure habia"/ gela?

Zein dira espazio horrek dituen ezaugarriak?

Seguru sentitzen al zara bertan?

Zure adierazle dela uste duzu? Adierazten zaitu?

2. Hurrengo eguneko tailerrera, parte hartzaileei beraien logela edo "habiaren" argazki bat atera eta ekartzeko proposatuko diegu. Ondoren gelan jarriko ditugu argazkiak, beraien eta besteen logelak nola diren ikus ditzaten.

3. Jardueraren bigarren atalean, Adrienne Salingerren obra ezagutuko dugu, bertan, 90. hamarkadako nerabeen logelak ageri dira. <https://www.anatomyfilms.com/adrienne-salinger-real-teens/> <https://www.ismorbo.com/la-fotografa-adrienne-salinger-retrata-a-adolescentes-en-sus-dormitorios-en-los-90/>

4. Ondoren, 4-5 pertsonetako taldeetan elkartuko gara, eta hausnarketa bat abiatuko dugu, behatu ditugun gelakideen logela argazki eta Adrienne Salingerren lanaz hitzegiteko. Horretarako baliogarri izan daitezkeen galderak:

Ze ezberdintasun atzematen dira?

Pertsona bakoitzaren gustu edo nortasuna nabarmentzen al da?

Zein uste duzu dela pertsona hoi maila ekonomikoa?

Zerk deitu dizu arreta?

Zurearekin alderatuz, zertan dute antza eta zertan desberdintasuna?

5. Munduko logelak: James Mollisonen artelana ikusiko dugu, bertan, munduko umeen logela desberdinak ikusiko ditugularik. https://www.youtube.com/watch?time_continue=73&v=Lx4SkDhh7l&feature=emb_title <https://culturainquieta.com/es/lifestyle/item/11983-ninos-de-diferentes-paises-nos-muestran-sus-habitaciones.html>

Ondoren, hausnarketa egingo dugu ikusitako irudien inguruan.

Mollisonen lanean agertzen diren logelak, berdinak al dira munduko leku guztietan?

Zertan dira desberdinak?

Zerk deitu dizue arreta?

Famili mota desberdinak ageri al dira?

Desberdintasun ekonomikoak atzematen dira?

Nork metatzen edo pilatzen ditu objektu gehien?

Denek berdin metatu edo pilatzen dute?

6. Bikoteka, "habi" edo logela baten maketa sortuko dugu, non, bi partaideek beraientzat garrantzitsua dena txertatuko duten.

• Ideien zaparrada bat egingo dugu, gai hauek jorratuz.

Zuen logela edo "habi" ideala o tik hasita sortzerik bazenute, nola izango zen?

Zer materialez osatuta egongo zen?

Zer 3 objektu izango ziren ezinbestekoak?

• Maketaren marrazki edo zirriborroa sortuko dugu. Ondoren, materialak aukeratzen hasiko gara eta sortzeko teknika definitzen.

• Maketa sortuko dugu.

• Izenburua pentsatu eta ondoren Tik Tok bat egingo dugu.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Gure gune, "habi" edo espazio propioen maketak behatuko ditugu eta gure buruari galdetuko diegu nahikoa adierazten ote gaituzten edo ez, baita zerbait aldatzea gustatuko litzaigukeen ere.

2. Bideo-erakusketa bat egin guztion Tik Tokekin. Ondoren, taldeak horrela nahi badu, sare sozialetara igo ditzakegu.